

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZUIAKO UDALA

Haurreskolak partzuergoaren menpeko udalaren haur-eskolan matrikulatutako hauren familiantzako 2018-2019 ikasturteko diru-laguntzak deitzen dituen Zuiako Udalaren Osoko Bilkuraren 2019ko apirilaren 11ko erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 462981

Diru-laguntzak emateko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3 eta 20.8 artikuluetan aurreikusitakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitara ematen da, eta horren testu osoa Espainiako Diru-laguntzen Datu-basean kontsulta daiteke, <http://www.pap.minhap.gob.es/bdnstrans>.

Lehenengoa. Onuradunak

Semea edo alaba Haurreskolak partzuergoaren menpeko udalaren haur-eskolan matrikulatu duten pertsonak, 2018/2019 ikasturtean zehar Zuian erroldatuta badaude, familia-unitateko gainerako kideak bezala, eta errenta-maila jakin bat gainditzen ez badute.

Bigarrena. Xedea

2018/2019 ikasturtean Haurreskolak partzuergoaren menpeko udalaren haur-eskolara joatea.

Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalaren Osoko Bilkurak 2019ko apirilaren 11n onartu zituen diru-laguntzak eta ALHAOn argitaratuko dira.

Laugarrena. Zenbatekoa

Partidaren diru-zuzkidura 3.000 eurokoa da.

Diru-laguntzaren zenbatekoa hileko kuotaren portzentaje bat da, eta familia-unitateko kide-kopuruaren eta horren 2017ko ekitaldiko errentaren arabera ezarriko da.

Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea

Hamabost egun ikasturtea amaitzen denetik.

Seigarrena. Beste datu batzuk

Eskabidea zein deialdiaren oinarriak www.zuia.eus orrian (Izapideak/Diru-laguntzak) edo Oinarrietan azaltzen dira.

Murgian, 2019ko apirilaren 11n

Alkate-Udalburua

UNAI GUTIERREZ URKIZA